



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2010-06-26**

VIII.U RTEA 2.037.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## «Ikusiz ikasteko» aukera eskaintzen du Ekomuseo berriak

**LARRAUL** Eskaintza zabala dute; tailerrak dituzte, garai bateko bizimodua ezagutzeko elementu desberdinak...

**GRISALLA XVI.** mendeko grisalla ere ikusi daiteke herriko elizan; erretaularen atzean egon da urte askotan 7



Museo etnografikoko sukaldeko irudia. o.i.



Sokamuturra izan zen atzo goizean Plaza Berrian. KUSK

## KOADRILEK HARTUKO DITUZTE KALEAK

**TOLOSA** Koadrilak izango dira gaurko protagonistak; biharkoan, aldiz, Errekortarien Txapelketa ikusi ahal izango da zezen-plazan 18:00etan 2



# TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.  
INSTITUTUA



**ziklo guztiak  
euskaraz**

### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: TOLOSALDEA idatziz 5533ra



Plaza Berrian izan zen atzo goizean sokamuturra. KUSK

## Jaietako bi egun handien zubi

### ERREDAKZIOA

San Joan Egunaren eta gaurko Koadrila Egunaren arteko zubi lana egin zuela atzokoak esan daiteke. Egunean zehar gaztetxo nahiz helduentzat ekitaldiak nagusitu ziren, eta gauean iritsi zen eguneko hitzordu berezi eta aipagarriena. Iñaki Odriozola *Mokolo* zenaren omenez kontzertua eskaini zuten herriko hainbat taldek Euskal Herria plazan.

Gaurkoan, berriz, festa giroa ziurtaturik dago egun osoan zehar, ekitaldiz beteriko egitaraua izango baita. Norberari dagokio gustukoena aukeratzera.



Sortzez Garbia plazan haurrentzako jokoak daude egun osoan. I.T.

### » GAURKO EGITARAUA

■ **10:00.** Beotibar pilotalekuan Hitza VI. esku pilota txapelketa.  
■ **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak, dultzaineroekin, Plaza Zaharretik.  
■ **11:30.** Bonberenea Txaranga kalez kale ibiliko da.  
■ **12:00.** Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Egun osoan: haimaketakoa, jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, txaranga, dultzaineroak eta Tolosa Kantari.

■ **14:00.** Koadrilen bazkaria Euskal Herria plazan. Ondoren Jo ta hanka musika taldearen emanaldia.  
■ **12:00.** Berazubini, tenisa. San Joan Sariaren finalak.  
■ **18:00.** Sortzez Garbia plazan *Azkona taldea* aurikuskizuna.  
■ **18:00.** Trianguloan herri kirol saioa: Mindegia, Senosiain, Azurmendi eta Otaño aikolariak; Izeta II eta Izeta IV harri-jasotzaileak; eta, Ibarroka emakumezko sokatira taldeak.

■ **19:00.** Plaza Berrian Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza.  
■ **19:00.** Berdura plazan, Sagardo Eguna.  
■ **19:00.** Iraunkorrek txaranga eta Mulambo kalez kale ibiliko dira.  
■ **19:30.** Mariachi Garibaldi taldea.  
■ **23:00.** Su festak, 2. bilduma: As-tondoa Piroteknia.  
■ **23:30.** Plaza Berrian Inde Kitzen eta Devon. Ondoren, DJ Black.  
■ **23:30.** Trianguloan kontzertua: Mariachi Garibaldi.



Pasa den urteko ikuskizuneko une bat, Tolosako zezen-plazan. HITZA

## Errekortari onenak ariko dira bihar lehiatzen

**Gizartea** » Tolosan hasiko da bihar aurtengo Errekortarien Txapelketa; 20 errekortari ariko dira, eta 8 sailkatuko dira.

### ERREDAKZIOA

Beste behin ere, Errekortarien Txapelketa hartuko du Tolosako zezen-plazak. Bihar izango da hitzordua, 18:00etatik aurrera, eta bertaraten direnek zezenen aurrean eginiko saltoez eta jolasez gozatu ahalgo dute.

Errekortarien Txapelketa bi final aurreko izango ditu, eta biharko izango da lehena. Bigarren finalaurrekoa Azpeitian izango da uztailaren 18an. Kanporatze proba hauetan 20na errekortari ariko dira lehiatzen, eta saio bakoitzeko 8 sailkatuko dira, Tafallan jokatuko den final nagusirako.

Errekortarietako plazaren hondar gainean Huelvako Antonio Rubio *Macandro*-ren ganadutegiko idisko-zezenak izango dituzte aurrez aurre. Antolatzaileek azaltzen duten bezala, «idisko-zezen hauek Domeq kastakoak dira, zutikako toreorako muleta-joko ederra eskaini ohi dutenak, eta gisa honeta-

ko ikuskizuneez dira atzeangel-dituko».

### «Ikuskizuna ziurtaturiko»

Antolatzaileek diotenez, «ziurtaturiko» dago ikuskizuna, izan ere, «Txapelketa parte hartuko duten errekortariak Euskal Herriko, Frantziako zein Espainiako onenak dira. Bestalde, edizio honetarako hainbat faborito daudela diote, baina iazko irabazle izan zen David Ramírez *El Peque*-rekin gertatzen dira.

Errekortari Txapelketa irabazten duenak sari gisara txapela eta 6.004 euro jasoko ditu. «Estatu mailako saririk garrantzitsuenak da, eta zalantzarik gabe txapelketa Estatu mailako erreferente argia da errekortaritzari dagokionean», diote.

Bada, ikuskizun berezi honetaz gozatu nahi duenak bihar 10:00etatik aurrera izango ditu sarriak eskuragai zezen-plazan. Helduek 15 euro ordaindu behar dute, eta gazteek, berriz, 10. Izan ere, adin guztiei zuzendutako ikuskizuna da, «ez baita odollik isurtzen, ez eta animaliarik zauritzen ere; zezen suharrarekin jolas egitearen zirrara sentiarazten duen ikuskizun paregabea da».



IRURAKO IKASTOLA KOOP. ELKARTEAK  
Langile bat behar du 10-11 ikasturterako


Haur Hezkuntzako teknikaria 2 urteko gelarako.  
Curriculumak e-mailez bidali behar dira  
irura@ikastola.net

Jasoko diren azken eguna: ekainaren 30a

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Alurr-ekoak Lekeition izango dira bihar

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr dantza taldekoak ikusi nahi dituenak, Lekeition du aukera bihar. Izan ere, bertan ospatuko den Antzinako Euskal Ezkontzan parte hartuko dute. Tradizio handiko jaialdia da hau.

12:00etan emango diote hasiera jaiari. Ezkontzako kideak, trikitilariak, dantzariak, Berastegiko txistulariak... kalejiran aterako dira herri-ritik barrena ondoren plazan bukatu eta parodia egiteko. Ibarra eta Altzoko 36 gazte ariko dira dantzaz.

Goizeko ikuskizunaren ostean, bertan bazkalduko dute, eta 19:00ak inguruan *Bainitz* emanaldia aurkeztuko dute Alurrekoek. Hala, dantza taldekoek eskualde-

ko herritarrek gonbidatzen dituzte, goizetik, jaiean parte hartuzera.

Bestetik, Alurr-ek udaberri honetarako ateratako boletok badute sariduna. Izaro Garmendia asteasuarrari tokatu zaio saria. Orain, 480 euro edo Ramon Gartzia eskal jantzien diseinatzailearen bitarjeren artean aukeratu beharko du.

Era berean, Alurr-ek bultzatuta San Joan bezperako sua berreskuratu zuten asteazkenean, Ibarren. Hala, dantza taldekoek, eskerrak eman nahi dizkie bertan parte hartu zuten guztiei, eta lanean aritu zirenei. Izan ere, bertan ateratako dirua, hemendik gutxira egingo duten elkartruke bidaia finantza-tereko erabiliko dute.

## Eskualdekoak Euskadiko Txapelketatik kanpo

### ERREDAKZIOA

Herenegun hasi zen III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketa. Andoainean jokatu zen lehendabiziko kanporaketa, eta bertan, Juanjoxe Erdozia nafarra eta Arkaitz Jauregi arabarra sailkatu ziren finalerako.

Andoingo udaletxe aurreko goiko plazan izan zen herri kirol jaialdia, eta bete-bete ginen plaza saioa zuzenean ikusteko. Bigarren kanporaketa abuztuaren 10ean jokatu da Aian.

Eskualdeko hiru aizkolarik hartu zuten parte: Asteasuko Jokin eta Xabier Alkizaletzek eta Leitzako Ruben Saralegik. Azken hau hirugarren geratu zen. Erdoziak bederatz minutu eta hamar segundo behar izan zituen lana osatzeko eta Saralegik, minutu bat eta heme-

zortzi segundo gehiago. Gipuzkoako trontza txapelketa ere jokatu zen San Joan egunean. Bertan, Aitor eta Igor Esnaola anaia izan ziren garaile.

Aizkora saioaren ondoren jokatu zen trontza txapelketa, Andoainen bertan. Guztira 18 epai egin zituzten kanaerdiko enborrean: 12 etzandako enborrean eta sei zutikakoan. Hiru bikote aritu ziren lehian: Aitor eta Igor Esnaola (Legorreta), Andoni Rezabal (Aia)-Aitor Roteta (Alkiza), eta Unai Salegi (Mendaro)-Andoni Zubiaurre (Mutriku). Eskualdekoa eta bere bikotea bigarren geratu ziren.

Era berean, bihar ekingo zaio lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako 600 kiloko lehiari, Loion (Bizkaia). Bertan lehiatuko da Areso.

## Udalak azalpenik ez diola eman salatu du tolosar batek

### ERREDAKZIOA

Tolosako San Joan jaietako hasiera emateko asteazkenean botatako suziriaren ezbeharrak pairatu zuten tolosarrak udaletxean ez diotela kasurik egiten salatu du. HITZAK ostiraleko zenbakian (2. orrialdean) azaldu moduan suziriaren makilak bizkarrean jozuen eta zauri-ari-nak ditu. «Ez da Udaleko inor etorri ezer esatera, jakinda non bizi garen, eta udaletxean lasai egoteko esaten digute», esan du.

<b>Gidariak</b> behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.	610-71 97 82
<b>Lan publikoetarako</b> zaintzaileak, igeltseroak, arrotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.	600-97 74 95
<b>Telefonistak/harreragileak</b> behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.	607 -25 42 40

## Eskualdeko enpresa askotan eman diote baiezkua grebari

**Ekonomia** » ELAk eta LABek «oso positiboki» baloratu dute greba orokorrek enpresetan jasotzen ari den babesa.

### ALEX AREIZAGA (GOIERRIKO HITZA)

Datorren asteartean, hilak 29, greba orokorra egiteko deia egin zuten ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek. Lehen bi sindikatuetakordezkariek agerraldia egin zuten atzo, greba deialdia enpresetako bozketetan izaten ari den harreraren lehen balorazioa egiteko.

ELAko Egoitz Iturbek eta Ekaitz Oiangurennek eta LABeko Josu Amenabarrek eta Oihana Lopezegik aurreratutako lehen balorazioaren arabera, greba deialdia Tolosaldean izaten ari den harrera «oso positiboa» da. «Lehen fase honetan langileriak eta jendarteak eman duen erantzunarekin oso pozik gaude», esan zuten sindikatuak. Eskualdeko enpresa handietan asanbladak jada egin dituztela jakinarazi zuten, eta enpresa txikietan eta bestelakoetan astelehenera bitarte egingo dituzte. Hala ere, egiteko daudenetan ere «oso emaitza onak» izango direla aurreikusten dute.

Sindikatuetakordezkarien hitzetan, «industriaren sektorean enpresen %100ean grebari babesa eman diola esan dezakegu». Hala, Tolosaldean asko dira jada asanblada egin duten eta grebari baiezkua eman dioten enpresak. Enpresa ertainetan edo txikietan bozketak ere «bide onetik» doazela azaldu zuten sindikatuetakordezkariek. Merkataritzari dagokionez ere sindikatuak «lanketa egiten» ari direla azaldu zuten, eta orain artean jaso duten erantzuna «oso ona» izaten ari da.



Atzo goizean egin zuten agerraldia, sindikatuetakordezkariek. GOIERRIKO HITZA

### Aldaketarekin «ados ez»

Ildo beretik langileak erreforma zer den ulertu duela nabarmendu nahi izan zuten sindikatuak. «Langileak ulertu du erreforma honek zertan eragingo dion, eta baita asteartean erantzun egin behar duela ere».

Asteartera bitartean «Tolosaldea geratuta» egongo den ustea agertu zuten sindikatuak, baina hori lehen pausotzat jotzen dute. «Pauso garrantzitsuenetako bat enpresetan langileek ulertzea eta grebara ateratzea da, baina hurrengo pausoa asteartean guztiok kalean egotea da».

Asteartean Gipuzkoa mailako protesta ekitaldia Donostian egingo dute euskal gehiengo sindikalak deituta, goizean. «Han agertu behar dugu zein indar dugun; erreforma ez dela langileen aldekoa eta ez gaudela ados aldatzarekin».

Honenbestez, 11:00etan Donostian egingo den manifestazioa jateko deia egin zuten langileei. Era berean, Tolosan 18:00etan Trianguloa plazatik abiatuta eta Leitzan 18:00etan San Migel plazatik manifestazioak egingo dituzte.

### » GREBAREKIN BAT EGIN DUTEN ENPRESAK

- **Iurreamendi.** Tolosa.
- **Emusi.** Irura.
- **Casa Ezeiza.** Lizartza.
- **Irurako ikastola.** Irura.
- **Zizurkilgo Udala.** Zizurkil.
- **Arteka.** Villabona.
- **Voith.** Tolosa.
- **Lantier.** Ikaztegieta.
- **Katea.** Ibarra.
- **Caldinox.** Belauntza.
- **Inoximek.** Belauntza.
- **Calcosa.** Anoeta.
- **SAM.** Tolosa.
- **Echesa (Gamesa).** Asteasu.
- **Unipapel.** Aduna.
- **C. Oria.** Belauntza.
- **Tarte.** Anoeta.
- **Manip. del Araxes.** Lizartza.
- **Talleres Bost.** Asteasu.
- **Laga.** Villabona.
- **Guibe.** Irura.
- **Perot.** Zizurkil.
- **Laborde.** Tolosa.
- **OTA Tolosa.** Tolosa.
- **Asmek.** Zizurkil.
- **Kelsen.** Zizurkil.
- **Isu Leihoko.** Tolosa.
- **Corenso.** Elduain

**MENDIKO LARREAK**  
PASTOS DE MONTAÑA

**LARREEN KUDEAKETA ETA ABELTZAINZAKO JARDUNBIDE EGOKIAK**  
MINTEGI PRAKTIKOAK

1. Aralar eta Aizkora-Aratzeko artzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuna
2. Larreen kudeaketa eta zaintza jardunbide egokiak
3. Larreak eta aldiaketa kimatikoak
4. Mendik-itxera

**Hartzaileak:** Aralar eta Aizkora-Aratzeko artzainak eta abeltzainak

**Non eta Nola:** Asteasuak, urtarrak 3 eta 19. eta abuztuak 2 (astelehena)  
Izoldiela, urtarrak 6 eta 20. eta abuztuak 3 (asteartea)  
Albas, urtarrak 7 eta 21. eta abuztuak 4 (asteazkena)  
Arakoko Parke Naturala, abuztuak 7 (larunbata)

**Informa zaitze!**  
943 21 23 69 | www.mendikolarreak.net





Araitz bailara eta Betelu herria ezagutzeko aukera izango dugu aste honetan. Ibilbideak 47 kilometro ditu.

# Araxes bidelagun hartuta

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldearekin harreman handia duen bailara ezagutuko dugu, Araitz, eta jarraian Betelu herria. Hau da Tolosaldeetik Nafarroan sartzeko bide naturala betidanik. Bide lasaia da, txirringularen ibiltoki aparta, oso trafikogutxi dagoelako Leitza-rango autobidea egin zutenetik. Araxes, Oriaren ibaiadarra, izango dugu bidelagun, Nafarroan barneratzeko bidea seinalatuz. Gaur egun ur fabrika diren eta garai batean bainuutxe izandako Insaluz eta Betelu pasako ditugu. Beteluko bainuutxeak 1884tik 1966 arte funtzionatu zuen. Insalusekoak gutxiago, 1888tik 1898ra. Bide erdia Gipuzkoan egingo dugu eta beste erdia gure lurralde ahizpa (edo ama) Nafarroan. Nabarmena da errepide hobe dagoela Nafarroan sartzekoan, asfaltatu berria, bai-

na gero tarteka aldrebestu egiten da.

Tolosatik abiatu eta lehen herria Lizartza dugu. Handik gutxi Nafarroako muga topatuko dugu eta muga pasa eta berehala bi tunel, 150 eta 230 metrokoak. Kaxiano soinu-jole ospetsu zena tunel horiek egiteko lanetan gelditu omen zen itsu. Konturatu gabe igotzen goaz, pixkanaka altura hartuz, baina Betelutik aurrera konturatzeko modukoa bihurtzen da aldapa eta bizikletaren pinioiak erabili beharrean gaude. Horrela iristen gara Araxes ibaiaren jaiokura, 344 metroko altueran.

Araitz bailara (Arribe-Atallu, Azkarate, Intza, Gaintza eta Uztegi) Aralarreko Malloetara igotzeko abiapuntua izan daiteke. Bertan bizi dira Txitxi Orbegozo eta Juan Gorriti artista ezagunak. Beste artista batzuk ere bizi izan dira baila-


ra honetan. Ez da harrizkoa inguru hau aukeratzea, artelan naturala baita. Betelun San Pedro jai patronaletan izango dira egun hauetan.

Ibilbide honetako 47 kilometroekin nahikoa ez eta indarrez dagoenak luzapenak oso eskura ditu, denak goraka, mendi arteko ibilbidea baita: Atallutik 3 kilometrotara Azkarate, Arribetik 2 kilometrotara Uztegi eta 3 kilometrotara Gaintza, Betelutik 3 km-tara Intza eta aurrerago, 20,5 km-an, Errazkin 2 km-tara. Lezaeta ere bide ondoan gelditzen da. Eta gehiago egin nahi izanez gero, Azpirotz mendatea hortxe dago: 620 metroko altueran eta beste 3 kilometro. Eta handik beste 3 km eginda, Lekunberri.

Itzultzeko, bide bera erabiliko dugu. Pixkanaka jaisten doanez, errazagoa egingo da etxerako buelta.



Betelu herria. JOXEMI SAIZAR



## SARIDUNAK

### ① Afaria

Aitziber Urreta Garaialde  
(Ikaztegieta)



### ② Abonoak uztaileko zine-kluberako

Imanol Aizpurua Sorondo (Alegia)

Aloña Otermin Beldarrain (Anoeta)



### ③ Diskak

Hotsak Dantzan 2  
eta Gasteiz  
Big Band-en **Bing Bang!**

Inazio Agirre Arregi (Tolosa)

Juan Bautista Aranzabe Baltziskueta (Tolosa)



### ④ Liburuak

Amesgaiztoa Egunkaria  
auziko epaiketaren kronika

Ines Berasategi Lardizabal (Tolosa)

Maritxu Bernabe Gorostidi (Tolosa)



Sariak jasotzeko, HITZA jarriko da irabazleekin harremanetan.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**

# Munduko musika eta mugimenduak abesbatzan

**Alegia** » Txintxarri Txiki Abesbatzakoek eta musika tailerrekoek kontzertua eskainiko dute gaur 19:30ean Kultur Etxean.

## ERREDAKZIOA

Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrenaren barruan sartzen da Txintxarri Txiki Abesbatza gaur eskainiko duen kontzertua. Abesbatza gaztearekin batera, aurten abian jarri duten Kantuaren eta Jolasaren tailerreko neska mutikoei parte hartuko dute. Kultur Etxean izango da emanaldia 19:30ean. Txintxarri Txiki abesbatza hamabost gaztek osatzen dute. Musika tailerrean berriz, sei-zazpi urteko neska mutilak, bi hilabete terdiz musika jolasaren bidez ikasiko dute Idoia Iraolarekin.

## Kolore askotako egitaraua

Kontzertu berezia izango da gaurkoa. Dibertigarria. Doinu berriak eskainiko dituzte, mugimendu askokoak eta munduko hainbat kulturatakoak. Zenbait kantu musika tresnen laguntzarekin kantatuko dituzte eta, dantza eta koreografia asko erabiliko dute abestietan.

Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean, Txintxarri Abesbatzak irekiko du emanaldia. Xabier Leteren habanera ezagun bat kantatuko dute. Ondoren, Hego Afrikako *Ipharadisi* kantu herrikoia abestuko dute. Euren lanarekin amaitzeko, Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen gospel doinua aukeratu dute.

Segidan, txikiaren txanda izango da. Idoia Iraolaren taldeak tailerrean ikasitakoak erakutsiko dituzte. Afrikako, kontinente beltzeko, doinuak eskainiz: *Uele*,

Kongoko ibaiari izena ematen dion kantarekin. Ondoren, *Iruten ari nauzu* euskal doinu ezaguna eta Pirritx eta Porrotxen *Maite zaitut* kantu ezaguna abestuko dituzte.

Txintxarri Txiki ere erritmo handiko doinuak eskainiko ditu, Iker Navarro alegiarra lagun dutela. *Canço Japonesa* abestiaren hasiko dira. Lehoi baten historia kontatzen duen *Kuku ué* kantu eta *Iritsi da eguna* abestuko dituzte gero.

Kontzertuari amaiera emateko, hiru taldeak batera ariko dira. Sorrotan Beleren *Arratsalde honetan* eta *Tutira mai* kantatuko dituzte. Pianoan, Mariaje Rekondok lagunduko die. Gitarraarekin, Andoni Agirrezabalak eta Maialen Oiarrebalek. Biolinean berriz, Unai Agirreurreta eta Ixone Urkiri izango dira.



Txintxarri Txiki Abesbatza 15 gaztek osatzen dute. Aurten, Nafarroara joan ziren egun pasa. HITZA

# Esku pilota eta pala partidak

## Tolosa

» Hitz Txapelketako finalerdiak gaur eta astelehenean jokatuko diren partidetan, finalean nortzuk ariko diren erabakiko baita.

San Joan jaietako ekitaldien barruan, Beotibarren goizeko hamarretan jokatuko dira pilota partidak. Hitz Txapelketako nagusien mailan, Sukia-E. Galarragak Quina eta Zubiriren aurkako jokatu dute.

Jarraian, San Joanetako Jaialdiaren barruan kadeteetan Labaka-Elustondo eta Sagasti-Tolosa

bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Emakumeak berriz, palan jokatu dute: Nagore-Garmendia-Urkizu-Montesen aurka.

Etzi, hilak 28, jarraituko dute Hitz Txapelketako finalerdieta-

ko partidak. Kadeteetan, Olanor-Elustondo eta Goikoelea-Irurretagoiena bikoteak eta jubenetan, Urretabizkaia-Elejalde eta Juaneña eta Aizpuru bikoteak. Partidak, arratsaldeko seiretan hasiko dira Beotibarren.

## ERREDAKZIOA

Hitzako VII. Pilota Txapelketa finalerako bidean da. Gaur eta astelehenean jokatuko diren partidetan, finalean nortzuk ariko diren erabakiko baita.



# GORA SANJUAN!

Tel.: 943 672 248  
670 420 380  
-TOLOSA-

www.alustizapintores.com  
info@alustizapintores.com

## Gutunak

### Altzotik, mila esker zuri

*Amets polit polit bat izan dut* bat zioen gure abestiak eta oso ondo islatzen zuen ekainaren 13an Eskola Txikien Festaren atarian zein zen gure nahia, gure sentipena.

Urte osoko bizipenak genituen soinean, urte osoko lana eta ahalegina eta amaiera nola ez, amets polit bat bezalako izatea nahi genituen.

*Bi ginen ta zu hiru, zenbat miru.* Miru asko, milaka miru, hori bai, hegan etorri ordez, autobusez inguratu zineten Otsabioren magalera ekainaren 13an. Eta hantxe geunden zure zain. Nolako harreara egin genizun? Bete al genuen aurrez esandakoa? Alegia, Altzotik hartuko zaitu bere altxoan.

Harreraren ondotik, ondo pasa al zenuen prestatutako ekitaldietan? Gusturajardun al zuten seme-alabek jokoetan? Gustatu al zitzaizun prestatutako erakusketa? Eta, lekuko aldaketa? Aizu, eta ia herri osoa oholta gainera igo ginenean zer... ondo abestu al genuen?

Eguerdia iritsi zen eta tripa zorriak sentitzen hasiak dagoeneko. Egunak merezi zuen eta gosea kentzeko mokau goxo bat egitea onena. Frontoian prestatu genuen bazkaria zuretzat. Ondo bazkaldu al zenuen? Agian nahiago izan zenuen etxetik ekartzea eta lasai-lasai lagun artean bazkaltzea. Horrela egin bazenuen, kafe ona hartu al zenuen?

Hainbeste galdera egin ondoren, ordua izango da gure egun ho-

rretako sentipenak agerian jartzeko. Guk bai, aitortzen dizugu, egun ederra pasa genuela zure ondoan. Milakamiruren bueltan osogustura sentitu ginen. Alaitasun eta kolorez bete zenuten gure herria. Ez hori bakarrik, baita ondo zaindu eta txukun-txukun utzi ere. Bejondeizula!

*“Lehen txiki ginenok  
ia handi gara  
askoz handiago  
zu batzen bazara”*

Esaten zuen abestiaren leloak edo errepikak. Zer esango dizugu bada zuri, kontua ez da txiki edo handi izatea, ez gara bizi handi izatearen desioan. Lehen txiki ginenok orain ere txiki gara, baina nor izan nahi dugu. Horixe da ekainaren 13an zuri esan nahi genizuna.

Zuri jakinarazteko eta bide batez Altzotik etorkizuna lantzeko, elkartu ginen herri osoa, oraingoak eta iraganeak. Zertara etorri ziren bada Altzoko Erraldoi, Imaz Bertsolaria, Pello Errota, Asteasu-ko Itsua, Artzaun eta Txanbolin?

*Zu batzen bazara aurrez* ere ziur geunden eta zer esango dizugu ba amaieran zuri, izan laguntzaile, babesle, komunikabide ezberdineko ordezkari, udaletxe, eskola txikitako ordezkari, irakasle, guraso, ikasle, aitona, amona... eguna fresko antzekoa izanik ere, gertu gertuan sentitu genuela zure epe-la.

Mila esker zuri!

**Eskola Txikien Festaren Batzorde Iraunkorra.** Altxo.



INFO  
943 654 501  
www.tolosaldegaratzen.net  
San Esteban 20  
20400 TOLOSA

**TOLOSALDEAN NEGOZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA**

**100€**

NEGOZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEAGATIK

**500€**

TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO

AURKEZPEN EPAIA:  
-Ekainaren 1etik Irailaren 30era edota aurrekontua agortu arte  
-Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da



- Akupuntura
- Terapia eskuz
- Errehabilitazioa
- Gernu inkontinentzia
- Kirol masajea eta terapeutikoa
- Erdite aurreko prestatketa eta ondorengo tratamendua

Eider Amondarain Larrinaga  
Naiara Olaetxea Amonariz  
Tel.: 943 249 692  
Batxiller Zaldibia 12 behea  
-Tolosako tren geltokian ondoan-

Geltoki kalea,  
1 behea  
20400 Tolosa  
Cipuzkoa



- Laserra -
- Hortz-zuritzea -
- Inplanteak -
- Hiru dimentsiotako radiologia digitala -

Tel.: 943 249 882    aarbillaga.hortzklmika@gmail.com    ZBKIA: 20000825



## Bihar Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketa izango da

**Zizurkil** » 18:00etatik aurrera, hiru emakumezko eta sei gizezkoen artean jokatu da txapelketa.



Zizurkilgo eskolaren atzeko zelaian izango da txapelketa. E. EZEIZA

### ERREDAKZIOA

Bihar Zizurkil, Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketa jokatu da. 18:00etan emango zaio hasiera eta eskolaren atzeko belardian izango da. Gizezkoen eta emakumezkoen saioak izango dira. Gizezkoak sei izango dira eta emakumezkoak hiru.

Emakumeek, 35 metro karratuko bi sail moztu beharko dituzte azkartasunean. Eta gizezkoek aldiz, 100 metro karratuko bi sail moztu beharko dituzte eta hauek ere azkartasunean.

### Sei segalari, eskualdetik

Emakumeen arteko lehia, Yurre Olano gazteluarra, Aloña Galarraga idiazabaldarra eta Arrate Garin legorretarra ariko dira. Gizezkoetan berriz, Jokin Etxeberría

amasarra, Joxe Garbirondo gazteluarra, Andoni Goikoetxea gazteluarra, Juan Joxe Lizaso asteasuarrak, Jexux Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak eta Mikel Artola donostiarra izango dira.

## Leire Olaberriak urrea eskuratu du Albaceten jokatu den erlojupekoan

**Ikaztegieta** » Txapeldun geratu da Espainiako erlojuaren aurkakoan. Pista eta errepidean denboraldi ezin hobea egiten ari da.

19,6 kilometro egin behar izan zituzten erlojuaren aurka. Bigarren sailkatu zen Bravori 34 segundoko alde ateratzen zion eta hirugarren sailkatu zen Galvezi, 56 segundo.

Ikaztegieta, udaberrik hona, belodromoan, errepidearengatik aldatu du eta emaitza ezin hobea lortzen ari da.

### ERREDAKZIOA

Leire Olaberri txirrindulariak beste domina bat eskuratu du. Olinpiar Jokoen eta Mundialen ostean, oraingoan, errepidean, Albaceten jokatu den Espainiako erlojuaren aurkako lasterketa irabazi du. Errepidean lortzen duen lehen domina du hau.

Iazko urtean brontzezko domina jantzi zuen. Ostegunean jokatu zen lasterketan, ez zuen hutsik egin eta bera izan zen azkarrena.

Emakumeen Biran sufriztea egokitu zitzaion baina egoera fisiko hobetu du eta aurreko asteburuan ere bi garaipen eskuratu zituen. Bata Bergaran eta bestea Zizurkil.

Pistako denboraldira maila onean iristeko, errepidean Debabarrena-Kiroldi taldearekin ari da. Gaur, errepideko proban parte hartuko du eta 100 kilometroko ibilbidea izango dute.



## Mikel Zalakain gogoan izan dute

**VILLABONA** » Herritarrek gogoan dute egun hauetan ostegun goizaldean hil zen Mikel Zalakain euskal iheslaria. Herenegun eta atzo arratsaldean, bere lagun, senide eta herritarrak herriko plazan elkartu zi-

ren. Ondoren, herrian barrena manifestazioa egin zuten. Gaur 12:00etan, agerraldia egingo dute herriko plazan. Gorpua erraustu egin dute eta datorren astean iritsiko da Villabonara. E.MAIZ



## Loatzokoak Etxarri Aranatzen

**LOATZO** » Hilaren 19 eta 20ko asteburuan, Loatzo Musika Eskolako 70 ikasle eta irakasle, Etxarri Aranatzera joan ziren asteburu pasa. Larunbatean kalejira egin zuten herrian zehar eta arratsaldean kontzertu bat eskaini zuten Kultur Etxean. Ordainetan, Etxarriko musika eskolakoei meienda eder bat eskaini zieten. HITZA

## U Urteurrena

I. urteurrena  
**MARIA OTEGI OTEGI**



Borrokalari sutsua izan zinen, eta alaia.

**Maribietan Imanol**

Urteurrenako meza bihar, igandea, 12:00etan izango da Ordiziako Andre Mari elizan.

**ORDIZIA**  
2010eko  
ekainaren 26a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Larraulgo Ekomuseoa ikusgai, «ikasiz gozatzeko»

**Kultura** » Eskaintza zabala du inauguratu berri duten museoak; tailerrak, erakusketak, bisita desberdinak...

## OIHANA IGUARAN

Larraulgo barren-barrenetik ezagutzeko moduko eskaintza du Ekomuseoak, mendeetan zehar nekazaritzatik bizi izan den herri baten ondareak eta bizimodua erakusteko prestatua. Larraulgo baliabide desberdinak lotu dira bertan, bisitari asetzeko moduko eskaintza zabala osatuz.

## Lehenagoaz gain

Larraulgo zazpi herritarrek osatutako DINA7 kultura elkarteak izan da museo hau prestatu eta kudeatu duena, eta elkarteko kide den Pili Otaegik azaldu bezala, «duela 12 urte sortu zen museo etnografikoa eta grisalla ere ikusgai zen. Baina gainerako baliabideez ere oharturik, guztiak erakutsi nahi eta ekomuseoa sortzea otu zitzaigun». Ideia hura izan zutenetik, ordea, lan asko egin dute herritar hauek, eta maiatzaren 22an aurkeztu zieten ekimena herritarrei. «Bide batez, bolatoki berria ere estreinatu genuen», aitortu du Otaegik. Baina bolatokia ez da nobedade bakarra, beste asko ere prestatu baititu kultura-taldeak bisitariari begira.

## Berrikuntzak

Eskaintza berrien artean daude esaterako, tailer didaktikoak: «lehenago eskoletatik bertaratzen ziren taldeei zerbait tailer egiteko aukera eskaintzen zitzaizkien, eta orain, tailer horiek ugaritu eta parte hartu nahi duen ororen esku jarri ditugu». Honela, bertaratzen denak bost tailer izango ditu hautagai: ogi tailerra, ukenduen, egurrarena, bertsoena, eta buztinarena. Aukera paregabea bertako garai bateko zein gaurko bizimodua ezagutzeko.

Nekazaritza bizimoduari begira ere aukera zabala dute: baserrietako tresnak erakusgai dituen museo etnografikoaz gain, hainbat bisita jarri baititu aukeran kultura elkarteak, «ikasiz ikasteko». Adibidez, Txuringadiko errotara joanez gero, nola funtzionatzen duen ikusiz irina nola egiten den ikasi ahal da. Baita ganadutegi baten funtzionamendua ere, esne-behi ukiulura joanez gero bisitan. Hauetaz gain, bertako eskultorea eta kultura elkarteko kide den Karlos Irazuren tailerra ere ikus daite-

ke, eta bisita osatuago bat nahi izanez gero, ondareen ibilbidea egiteko aukera izango da ferratokia, karrobi-zuloa eta baserriak ezagutzeko.

## Bisita orduak

Ateak irekita ditu beraz Larraulek, eta hilabete bakoitzeko lehen igandean, 11:00etatik 14:00etara egongo da irekita norbanakoentzat. Taldean joan nahi izanez gero, (taldeak 10 lagun izan beharko ditu gutxienez), hitzordua eskatu beharko da honako telefono zenbakira deituz: 688 803 608.



Ezkerretik askuenera: Pili Otaegi, Aitziber Mendiola eta Karlos Irazu, DINA-7ko kideak. o.i.



Elizako grisalla. o.i.

## ELIZAKO GRISALLA

Gipuzkoa mailan, bertan soilik aurkitu daitekeen ondarea du Larraulgo elizak: duela 14 urte eliza zaharberritzen ari zirela aurkitutako grisalla. «Erretaularen azpian XVI. Mendetik ezkutuan egon den margolana da», azaldu du Aitziber Mendiolak, DINA7 elkarteko beste herritar batek.

Badirudi, garai hartan erretaula eraikitzeke adina diru bildu bitartean, horman marraztu ohi zirela erretaula antzekoak, gero gurutze eta gainarrekoekin apaintzen zirenak. Honela, eliza gehienetan, gerora eraikitako erretaulak estalirik egongo dira grisalla asko, baina Larraulgo elizan ikusgai dago XVI. mendeko altxor hau.



Museo etnografikoko sukaldea. o.i.



Bolatoki berria. o.i.



23°  
15°

GOIZA	EKAITZA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	22°
HOTZENA	15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Abaltzisketa.** San Joan jaiak: 10:30ean VIII. Plater tiraketa lehiaketa Larraitzen herritarrentzat; 11:30ean ume jolasak herriko haur-errentzat; ondoren hamaiketako; 15:30ean VIII. Mus txapelketa Larrunarri elkarte; 21:00etan sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norbere kontura); ondoren bertso-saioa Iban Urdangarin eta Joxe Munduaterekin eta dantzaldia Itzel taldearekin.

■ **Leaburu.** San Pedro jaiak: 12:00etan jaietako emateko suziria; 16:30ean, mus txapelketa Zazpi Bide elkarte; 21:00etan, herri afaria pilotalekuan; Ondoren, asmakizun lehiaketa; 23:00etan, Joseba eta Andoni trikitilariak; 01:00etan, era askotako musika.

■ **Tolosa.** San Joan jaiak: 10:00etan Beotibar pilotalekuan Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza VI. esku pilota txapelketaren final aurrekoak; 11:00etan erraldoi eta buruhandiak plaza Zaharretik; 11:30ean Bonberenea Txaranga kalez kale; 12:00etan Koadrilen Egunari hasiera Plaza Berrian (egun osoan haimaketakoa, jokoa, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, txaranga eta dultzaineroak eta Tolosa Kantari taldea); 14:00etan Euskal Herria Plazan koadrilen bazkaria; ondoren Jo ta hanka taldea; 12:00etan Berazubini teniseko San Joan sariaren finalak; 18:00etan Sortzez Garbia plazan Azkona Taldea haur ikuskizuna; 18:00etan Trianguloan herri kirol saioa: Mingegia, Senosiain, Azurmendi eta Otaño aizkolariak; Izeta II eta Izeta IV. harri-jasotzaileak; eta Ibarrako emakumezko sokatira taldeak; 19:00etan Plaza Berrian Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza; 19:00etan Berdura plazan, Sagardo Eguna; 19:00etan Iraunkorrek Txaranga eta Mulambo; 19:30ean

Mariachi Garibaldi taldearen kalejira; 23:00etan su festak (Astondoa Piroteknia); 23:30ean Plaza Berrian Inde Kitxen eta Devon musika taldeen kontzertua, ondoren DJ Black; 23:30ean Trianguloan Mariachi Garibaldi.

■ **Tolosa.** Urkizu auzoan San Pedro jaietako hasiera: 12:00etan Suziria eta kanpaia; 13:30ean auzoko umeen bazkaria eta ume jolasak; 18:00etan Ate Joka antzezlan; 21:00etan auzoko afaria bertsolari eta trikitilariekin.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Uztailaren 3 eta 4rako Pirinioetara mendi irteera antolatatu du Alegiako Mendi Asanbladak. Izen-ematea, ohiko tokietan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



Zorionak!

**Unai Arrieta Kortajarena (Amasa).**  
Gaur 7 urte. Muxu potolo bat familiaren partetik. Aupa Realak!



## Koloretako euriaren magia

**TOLOSA** • San Joan gauean, kolorez jantzi zuten zerua Piroteknia Zaragozanako suek. Gau giro ederrean, Oria ibaira hurbildutakoek aho zabalik jarraitu zieten suaren norabide eta koloreei. Napar zubian jarritako

suek ere ikuskizuna eskaini zuten. San Joan jaietako azken suak ikusteko aukera gaur izango da, 23:00etan. Tolosako zerua kolorez tindatuko duten suek, ikusle berezia izango dute gainera, ilargi beteā. JOSEBA MERCADER

“Xirimiri”

Errementari kalea, 40  
20400 Tolosa

Txokolategia

Telef. 943 67 52 23

**GORA  
SANJUAN!**